



MARCAPÁGINAS



Erein

ELMER NAIZ

Oihana Prado

Umoretsua, eskuzabala eta koloretsua. Halakoxea da gure Elmer. 25 urte baino gehiago dira David McKee britainiarak bere estreinako abentura plazaratu zuenetik eta, aizu, ez garela nekatzen. Orain gutxi, gainera, Ereinek elefantearen laugarren istorioa eman digu, euskaraz: Elmer eta Ostadarra. Koloreak galdu dituela eta, triste dago ostadarra eta Elmer hori konpontzen saiatuko da, bere erara, istorio maitagarri eta polit honetan.

Album ilustratua maite dugunontzat, plazer bat da bere orrialde koloretsuetatik igarotzea. Aldiz, zalea izateaz gain, guraso ere bazara, esango nuke ezinbestekoa dela hurrekin batera ipuin hauek irakurtzea. Izan ere, irakurzaletasunaren gozamena sustatzeaz gainera, gure gizarte honetan arrotz bilakatu diren baloreak transmititzen ditu: adiskidetasuna, eskuzabaltasuna, umorea, zintzotasuna. Aupa Elmer, urte askotarako!